



Arartekoaren ebazpena, 2010eko uztailaren 30ekoa. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio ondare erantzukizuneko espediente bat espresuki ebazteko neurriak har ditzan.

Aurrekariak

1. (...) jaunaren familiak kexa bat aurkeztu zuten ondare erantzukizuneko eskakizun baten esanbidezko ebazpenaren falta dela eta.

2009ko martxoan Osakidetzak zegokion espedientearen hasierari buruzko martxoaren 20ko 1216/2009 Ebazpena jakinarazi zion. Espedienteak ebaluazio ekonomikoa eskatzen zion eta interesdunak izapide hori maiatzean egin zuen. Kexaren gaiak orduz geroztik espediente horri buruzko ondorengo jardueren berri ez izaterekin zuen zerikusia.

2. 2010eko urtarrilaren 14ko idazkiaren bidez, aipatutako erakundeari interesdunaren ondare erantzukizuneko espedientearen izapidetzeari buruzko informazioa eskatu genion.

2010eko otsailaren 4ko haren erantzunean Osakidetzak adierazi zigun prozedura ez dela amaitutzat jo, irekita jarraitzen baitu. Izan ere, espedientearen ebazpena eman aurretik, adituaren txosten medikoa egiteke zegoen.

3. Maiatzaren 13an berriro jakin arazi zigun erantzunik gabe jarraitzen zuela.

Hori dela eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen exigentzia dela alde batera utzi ezinik, 2010eko maiatzaren 26ko idazkiaren bidez, berriro ere Osakidetzara jo genuen atzerapenaren inguruko informazioa helaraz ziezagun. Atzerapena Ararteko erakunde berean izapidetutako beste kexa-espediente batean antzeman genuen. Beraz, jakin nahi genuen atzerapen hori inguruabar berezien ondorio ote zen edo arrazoiren bat ote zegoen eta atzerapen berdinak beste espediente batzuetan eragina izango ote zuen.

Gogoetak

1. Kasu honen aurrekariak –adierazi dugun moduan, izapidetzen ari garen 2010. urteko beste kexa-espediente baten antzekoak dira- ondare erantzukizunaren arloan aurkeztutako kexen izapidetzean gehiegizko atzerapena agerian jartzen dute.





2. Erantzunik ezaren inguruan, beharrezkoa da kexa horiek azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak, ondare erantzukizun arloan prozeduren araudia onartzen duenak, ezartzen dutenaren barne sartzea. Horrez gain, aipatutako legeak 42. artikuluan interesdunek egiten dituzten eskaeren esanbidezko ebazpena emateko beharraren inguruan xehatzen duena gogoratu beharra dago.
3. Aurrekoa azalduta, ondare erantzukizuneko eskaeretan atzerapena eta horren ondoriozko esanbidezko ebazpenaren faltak kexak eragin dituzten espedienteak aintzat hartuta, aurreratu behar dugu egiaztatu dugula bat gatzela -Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia eta Arartekoa- pentsatzean espediente horiek administrazioaren isiltasun negatiboak dakarren fikzio juridikoan oinarrituta konpondutzat ematea desegokia eta bidegabea dela. Izan ere, hori administrazioaren jarduerarik ezaren aurrean fikzio bat da eta horrek ez du desagerrarazten prozedura administratibo guztietan esanbidezko ebazpena emateko beharra.

Zentzu horretan, urtarrilaren 25eko gure lehenengo informazio eskaeraren erantzunean, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak berak adierazi zuen esanbidezko ebazpenak, kontrako erabakietan betebeharrak soil soil bat izateaz gain, pertsonen erabakiaren arrazoiak edo argudioak ezagutzeko aukera ematen diela.

30/1992 Legeak, honen arabera administrazio publikoek ezin dute isiltasunaren aitzakiaz ebazpena emateari uko egin, 89.4 artikuluan ezartzen duena ez da zalantzan jarri.

Hori horrela, gure azken informazio eskaerak, maiatzaren 26koak, atzerapenaren arrazoen inguruko erantzunik ez du jaso. Aurkezten diren erreklamazioak esanbidez ebatzi behar direla onartuta, espediente horiek ez izapidetzeko arrazoa espediente ugari egoteari egotzi behar diogu; espediente horiek, gaiaren konplexutasuna aintzat hartuta, beharrezkoak diren bitarteko nahikoak esleitzea exijitzen dute espedienteak zerbitzu publikoei eskatzen zaien eraginkortasun printzipioari jarraiki izapidetu ahal izateko.

4. Garrantzia aurrekoari emateaz gain, jasotako osasun laguntzarekin ados ez dagoelako kexa bat aurkezten duen pertsonak eta, horrez gain, bere ondare erantzukizuneko eskaerak erantzunik jasotzen ez badu, pertsona horrek isiltasun horren inguruan izango duen pertzepzio txarrari ere garrantzia eman beharko genioke.





Ondare erantzukizuneko espedienteak antolaketan agindutako baldintzetan izapidetzea, aztertzea eta administrazio bidean ebatzea, legezko agindua –azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua– izateaz gain, erabiltzaileek osasun sistema publikoaz duten irudian eragingarri izan daiteke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

19/2010 Gomendioa, uztailaren 30ekoa, Osakidetzari egina

1. Beharrezko tramiteak bete eta gero, bultza dezala (...) jaunaren familiak eskatutako ondare erantzukizuneko espedientea, 30/1992 Legearen 89.4 artikuluko legezko manuan agindutakoa betez.
2. Neurriak har daitezela ondare erantzukizuneko espedienteak ebatztean –Ararteko erakundearen egindako kexek iradokitzen dutenez– ustez gertatzen ari den atzerapena murrizteko.

